

Adinekoen Flandriako Erakundea



PARTAIDETZA AKTIBOA ADINEKOEI AHOTSA EMATEN FLANDRIA

Testuingurua

1993an Vlaams Ouderen Overleg Komitee vzw (OOK vzw) delakoa sortu zen, adineko jendearen erakundeen plataforma gisa. Askotariko elkarteek osatzen zuten erakundea eta 60 urtetik gorako jendearen erakundeak elkartu zituen, oso ideologia eta politika ezberdinetakoak. Asmoa ahots bakarrarekin hitz egitea zen, banatutako taldeen bitartez ezin lor litezkeen proposamenak ahots bakarraren bitartez egiteko. Era berean, Vlaams Ouderen Overleg Komitee Flandriako adineko guztien bozeramaile bihurtu zen.

Aholkularitza batzordea eta plataforma

OOK erakundeak adinekoen aholkularitza batzorde bat eskatu zuen maila politiko guztietan. Horrengatik urrats garrantzitsua egin zen 2004. urtean "Adinekoak Barne Hartuko Ditutzen Politikak Eta Adinekoen Partaidetza Sustatzeko Flandrian" dekretua onartu zenean. Gobernuak plataforma errekonozitu zuen kontaktu ordezkari gisa. Eta 2005ean OOK erakundeari aholkularitza batzorde zeregina esleitu zitzaion eta Adinekoen Flandriako Erakunde bihurtu zen.

Flandriako Erakundea Flandriako Gobernuaren aholkularitza batzorde ofiziala da adinekoen eta erretiroa hartutako herritarren gaien inguruan eta 60 urtetik gorakoek elkarrekin bilgune izateko plataforma bat da. Aholkularitza batzorde gisa, Flandriako Erakundeak beste helburu batzuk ditu: jendea informatu (aldizkaria – webgunea), adinekoen beharrezkoak identifikatu eta adinekoen inguruko ikerketetan lankidetzan aritu. Plataforma gisa, Adinekoen Flandriako Erakundeak adinekoen eta bere elkarrekin interesak sustatu nahi ditu eta gai jakin batzuen inguruan kontzientzia piztu nahi du. Plataformak Adinekoen astearren kanpaina egiten du.

Osaketa

Erakundea 44 lagunek osatzen dute. Kide diren azpi-erakundeek Erakundeko ordezkariak aukeratzeko dituzte, baita lau aditu independente ere. Gutxienez %60 60 urtetik gorakoak dira. Burua ere adineko pertsona bat da.

Ordezkaritza gaitasuna

Gure ordezkariak adineko erakundeek eta adineko eta erretiroa hartutako jendearentzako lan egiten duten erakunde sozialek osatzen dute, guztien ikuspegi, interes eta beharrezkoen ahots sinesgarri eta indartsua emateko. 30 erakunde-kide daude.

Nola dihardugu?

Adinekoen Flandriako Erakundearen jarduna adinekoen esanean oinarritzen da. Flandriako adinekoentzat garrantzitsuak diren gaiak eztabaidatzen dituzte hainbat batzordetan. Batzorde horietan adinekoen erakundeen ordezkariak eta aditu garrantzitsuek euren aholkuak eta puntuak helarazten dizkiote Flandriako gobernuari.

- **Diru-sarrera, ekonomia eta lan batzordea:** pentsioen inguruan lan egiten du, ziurtatzeko adinekoek pentsio maila egokia dutela.
- **Adinekoen Legearen Nazioarteko batzordeak** Europako eta nazioarteko ekintzen jarraipena egiten du. Flandriako Erakundea AGE Europako adinekoen erakundeko kidea da.
- **Mugikortasun batzordeak** adinekoen mugikortasuna hobetu nahi du. Garraio sistemak eta irisgarritasuna hemen eztabaidatutako gaiak dira.
- **Kirol batzordeak** adineko pertsonen kirola eta mugimendua sustatzen ditu. Kirol-ekintzek eragin positiboa dute bizitzaren kalitatea hobetzen, baita osasunean, bizi-itxaropenean, buru-egonkortasunean eta beste hainbat arlotan ere. Garrantzitsua da adinekoen artean kontzientzia piztea.
- **Osasun, Ongizate eta Zaintza batzordeak** zaintza arloko gaiak jorratzen ditu.
- **Kultura, Bizi guztirako ikaskuntza eta herritartasun batzordeak** arlo horiek jarraitzen ditu. Adinekoen ikaskuntzak esan nahi du oraindik maila pertsonalean gara daitezkeela, autonomia handiagoa izan dezaketela eta gizarteari ekarpen aktibo eta produktiboagoa egin diezaioketela.

Adinekoen astea

Urtero adinekoen erakundeek Adinekoen astea antolatzen dute azaroko hirugarren astean. Aste horretan, tokiko adinekoen elkarteek ekintza asko prestatzen dituzte euren auzoetan. Aste horretarako, Adinekoen Flandriako Erakundeak adinekoen inguruko gai bat proposatzen du tokian tokiko agintariak eta erakundeek horren inguruan lan egin dezaten hurrengo bi urteetan. Aste horretarako idazkariak eskuorri bat egiten du metodologia zehaztuz, tokiko aholkularitza batzordeen lagungarri.

2012 eta 2013an Flandriako Erakundeak lan egingo du gai honen inguruan: **Zahartze aktiboa eta Belaunaldien arteko Elkartasuna** '. Gaiari bi aldetatik helduko zaio. Alde batetik, zahartze aktiboaren sustapena gizartearen aldaketa demografikoak eragindako arazo sozialei irtenbide bat emateko asmo gisa ikus daiteke. Testuinguru horretan, jendeak askotan pentsatzen du pentsio eta eta osasun sistemak luzaro iraun eta jasangarri egin beharrak luzaroago lan egitea dakarrela. Adinekoen Flandriako Erakundeak "Zahartze Aktiboaren" interpretazio ezberdin bat egin nahi du, gogoratuz adinekoek gizarteari laguntza handia eskaintzen diotela, izan zaintzaile ez kualifikatu gisa, izan langile boluntario gisa, izan kontsumitzaile gisa edo euren zeregin politikoarengatik. Adinekoen Flandriako Erakundeak arreta berezia eskatzen du txirotasun eta ahultasun egoeran dauden adinekoen kasurako.

Informazio gehiago

Vlaamse Ouderenraad, Kathy Louagie

E-posta: kathy.louagie@vlaamse-ouderenraad.be

www.vlaamse-ouderenraad.be, www.ouderenweek.be